



ARAUTEGIA

SASKIBALOIA 2014

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak saskibaloiko EUSKADIKO XXXIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ERRENDIMENDURA EKITEKO IBILBIDEAN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Saskibalo Federazioarekin lankidetzan, 2014ko maiatzaren 24 eta 31 eta ekainaren 1ean, Gasteizko San Andres kiroldegian (Araban). Hauxe duzue jokoen araudia:

1. JOKO SISTEMA

Itzulera bateko liga.

Partidak hamar minutuko lau denboratan jokatuko dira (erlojua geldituta).

2. TALDEEN OSAERA

Bere lurraldean sailkatutako taldea parte hartuko du.

Lurralde bakoitzetik errendimendua ekiteko ibilbideko infantil mailako nesken eta mutilen talde bana parte hartuko dute.

Talde bakoitzak gutxienez 8 eta gehienez 12 jokalaria kreditatu beharko ditu partida bakoitzerako, eta gehienez 3 teknikari.

Partida guztietan taldeko kideen lizentziak aurkeztu behar dira.

2000 eta 2001ean jaiotako jokalariek bakarrik hartu dezakete parte.

Talde guztiek kolore ezberdineko bi ekipamendu izan behar dituzte, bi taldek kolore berarekin jokatzea saihesteko.

3. JOKO ARAUAK

Kreditatutako jokalariek talde bakoitzak jokatzen dituen partida guztien lehen hiru denboretatik batean jokatu beharko dute gutxienez.

Entrenatzaileak denbora bakoitzeko hasierako bosta berretsi beharko dio mahaiari. Jokalariak zelaian ez badatoz bat emandako bostarekin eta errorea denbora hasita dagoela antzematen bada, entrenatzaileak falta teknikaria jasoko du zigortzat, errorea antzematen den unean. Behar bezala jokatzen ez duen jokalaria ordezkatu egin behar da eta bi jokalariei (ordezkatuari eta ordezkoari) denbora hori jokatutzat emango zaie.

Hutsarteak honela emango dira:

- Lehen erdian (lehen eta bigarren denboretan) erregistratutako bi hutsarte eman daitezke, edozein momentutan.
- Bigarren erdian (hirugarren eta laugarren denboretan) erregistratutako hiru hutsarte, edozein momentutan.
- Aparteko denbora bakoitzean erregistratutako hutsarte bat.

Erabiltzen ez diren erregistratutako hutsarteak ezin dira bigarren zatira edo aparteko denborara pasatu.

Lehen hiru denboretan ezin da ordezkapenik egin, halakoetarako izan ezik:

- Lesionatutako jokalaria bat ordezkatzeko.
- Deskalifikatutako jokalaria bat ordezkatzeko.
- 5 falta pertsonal egin dituen jokalaria bat ordezkatzeko.

Jokalaria bakoitzak lehen hiru denboretan gutxienez denbora oso bat jokatu behar du (denbora osoa denbora hasten denetik amaitzen den artekoa da), salbuespen hauetan izan ezik:

- Lesionatutako jokalaria: jokalariren batek denbora amaitzen ez badu lesionatu egin delako, denbora osoa jokatu duela onartuko zaio.
- Asistentzia jasoz gero ez dago jokalaria ordezkatzeko betebeharririk, betiere jokoa ez bada bi minutu baino gehiagoz eteten.
- Deskalifikatutako jokalaria: jokalariren batek denbora amaitzen ez badu deskalifikatu egin dutelako, denbora osoa jokatu duela onartuko zaio.
- 5 falta pertsonal egindako jokalaria: jokalariren batek denbora amaitzen ez badu 5 falta pertsonal egiteagatik, denbora osoa jokatu duela onartuko zaio.

Jokalari bakoitzak lehen hiru denboretan denbora oso batez egon behar du ordezkoen aulkian (denbora osoa denbora hasten denetik amaitzen den artekoa da), salbuespenik gabe. Jokalari lesionatua, deskalifikatua edo 5 falta pertsonalengatik kanporatua ordezkatzeko duen jokalariaren kasuan, jokaturako denbora ez zaio ordezkoen aulkian denbora oso bat egon da bezala onartuko.

Kanasta egin dioten taldeak hutsartea eskatu dezake.

Denbora bakoitzean talde batek 4. falta gainditzen duenean, bi jaurtiketa libre emango dira. Beraz, denbora berri bakoitzean taldearen faltak zerotik hasita zenbatuko dira. Laugarren epealdiko faltak, ordea, aparteko denboretarako metatuko dira.

Baloia 24 segundoz eta 8 segundoz edukitzeko arauak aplikatuko dira.

Partida bat jokatzean talde batek markagailuan 50 puntuko aldea ateratzen badio besteari, partida bukatutzat joko da, Akta ofizialak une horretan adierazten duen emaitzarekin. Geratzen diren minutuekin beste topaketa bati ekingo zaio, aktan eta sailkapenean inolako eraginik izan gabe, salbuespen hauek kontuan hartuta:

- Faltak zenbatzen jarraitu da, aktan jaso gabe.
- Deskalifikatzeko moduko faltaren bat egonez gero, Kirol Batzordearen esanera jarriko da.



Jokorako baloi ofiziala Baden markako BX471 (bi koloretakoa) edo BX 450 ereduia izango da, mutilentzat, eta Baden markako BX 465 (bi koloretakoa) edo BX 445 ereduia, nesKentzat.

4. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeron nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

5. AZKEN OHARRAK

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2014ko urtarrilaren 3ko AGINDUA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2014ko urtarrilaren 14ko EBAZPENA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f. Euskadiko Saskibaloia Federazioaren araudiak xedatzen duenari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeron, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.